

KONTU-KONTARI**GAU-LOREAK
IV. KAPITULUA****-I-**

Pedro Ilunbeoak sekula santan ez zuen pentsatuko hain urrutira helduko zenik. Urruti ikuspuntu geografotik eta urruti gauzatu beharreko zereginetan. Lehena, gauza jakina da bere jaioterrian, Mutrikun. Bigarrena, aldiz, mendez mende isilpean gorde den sekretu handi baten jakitun direnek baino ez dakite.

Behin Errege-erregina Katolikoek bandokideen arteko lisakar eta borrokekin bukatuta, bestelako giroa nagusitu zen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Aro berri baten atarian, jauntxo feudalek edo ahaide nagusiek ez zuten tokirik. Ez ordura arte mendez mende aritu izan ziren moduan behinik behin. Haatik, bestelako norgehiagoka hasi zen orduan. Bada, Errege-erregina Katolikoan mesedetan arituz, nork eragin eta onura handiena lortzea zen kontua. Baina haiek ere bazekiten nola irabazi Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren mesedea. Nolabaiteko bake sozialari eutsi zioten hiru herrialde horietan. Errespetatu ez ezik, zin ere egin zituzten, berariaz, bertoko lege zaharrak, hots, Foruak.

Halatan, elkar indartu zuten Errege-erregina Katolikoek eta euskal herrialde horiek. Bestela esanda, Gaztela eta Aragoi

hedatzen ari ziren Erresuma berriaren baitan, eta subiranotasunik galdu gabe, hiru euskal herrialdeek bazuten hasteko aukera, bai eta Erresuma horretan ezinbesteko eragin-gune bihurtzeko aukera ere.

Pedro Ilunbekoa izan zen horren guztiorren adibiderik garbiena. Mutriku eta Ondarroa artean zegoen Ilunbe dorretxea. Eta Pedro itsaso bidezko merkataritza-zereginetan hasi berria zen Mutrikuko portuan. Gazte azkarra izateagatik, ezari-ezarian, ezagun egiten ari zen Gipuzkoako portuetan. Ezbairik gabe etorkizun handiko mutila zen.

Alabaina, 1486ko urtarrilaren 17an bizitza goitik behera aldatuko zion gertakizuna jazo zitzaion. Egun hartan, eguerdiko angelusa eta gero Donostiako merkaturako sarreran hitzordua zuen bezero batzuekin. Egia esan, ez zuen haien berri argirik, ez zituen ezagutu ere egiten eta. Eurek bera bai ordea. Edo horixe esan zion behinik behin Getariako portuan bi aste lehenago gerturatu zitzaion mandatariak. Ez zekien zer-nolako negozioa eskainiko zioten, baina ilusio handiarekin bertaratu zen. Asmo handiak zituen.

Angelusa eta gero, hamar bat minutu-edo igaroko ziren, bi gizon hurbildu zitzaizkionean.

–Egun on jauna. Zu al zara Pedro Ilunbekoa?

–Jaunak eman. Hala da bai.

–Bagenuen, bada, zu ezagutzeko gogoia.

–Hemen nauzue, irrikatsu. Izan ere, ez dakit zerik ekarri nauan honaino.

–Hobeto kale-kantoiko taberna zaharrera bagoaz. Bertan gordea dugu tokia lasai hitz egiteko.

–Zuek esango duzue.

Bi gizon haiek esanari jarraituz, taberna zaharreraino heldu ziren. Zarratuta zegoen antza. Giltzapean itxitako ateak hala

erakusten zuen behintzat. Bi gizon haietako handienak, kolpe txiki batzuk eman zituen bertan, doinu jakin baten erritmora. Eta berehala atea zabaldu eta eskuarekin arin-arin sartzeko esan zien gizaseme txiki eta potolo batek. Ilun zegoen dena, baina tabernaren barne aldeko horman zeuden bi zuziek mahai bat argiro uzten zuten. Mahaiburuan beltzez jantzita zegoen gizon sendo bat ikus zitekeen.

–Egun on gizonak. Jar zaitezte hemen nire aldamenean
–Esan zien ozen, ahots sendoarekin.

Eta besterik gabe, agindutakoa bete zuten.

Pedrok nabaritu zuen ez zela edonor aurrean zuen gizona. Gertutik hobeto ikusteko aukera izan zuenean konturatu zen haren janzkera ez zela edonolakoa. Bai eta igarri ere.

–Egun on Pedro. Seguru asko ez nauzunez ezagutuko, nire burua aurkeztuko dut lehendabizi. Gipuzkoako Kapitain Nagusia nauzu, Joan Ganboakoa, alegia. Zu bezala Mutrikun jaioa.

–Esango du berorrek –Erantzun zion Pedrok Ilunbekoak, ohikoa zuen patxadarekin.

–Ez naiz asko luzatuko seme. Harira joko dut. Izango duzu Granadan gertatzen ari denaren berri ezta?

–Zerbait entzun dut bai. Nazari Erresumaren aurkako era-soaldiak behin eta berriro gertatzen omen dira.

–Ondo diozu. Ikusten dut merkataritzako kontuez ez ezik, bestelako kontuez ere badakizuna. Horregatik jo dut, hain zuzen ere, zuregana. Badudalako zuretzako egiteko garrantzitsu bat: hilabete barru Joan Lazkanokoa kapitainaren agindutara ontziratuko zara Sevillarako portuan.

–Baina zein izango da nire egitekoa?

–Ez zaitez azkarregi joan Pedro. Gauza bakoitza bere sasoian. Mementoz, jar zaitez harremanetan gutun honetan

agertuko zaizun pertsonarekin, bertan esandako tokian eta egunean. Besterik ez.

Horrela bukatu zen elkarrizketa antzeko hura. Azken agurra eta gero, zorte ona opatu zion Joan Ganboakoak, bai eta agindu bat ere: gauza guztien gainetik leiala izatea kristau fedeari.

Gutuna kolkoan sartu eta bakarrik atera zen tabernatik. Aldez aurretik inoiz nabaritu gabeko sentsazioarekin atera zen. Urduri zegoen. Oilo-ipurdia jarri zitzaion.

-II-

1486ko apirilaren erdialdera heldu zen Sevillara, urte bereko urtarrilaren amaieran, Hondarribian, Joan Sanchez Venesako jaunak emandako jarraibideak aintzat hartuz.

Pedro Ilunbekoak ezer gutxi zekien gerra kontuez, eta, are gutxiago, armak erabiltzeaz. Merkatariaren ogibidea azkar ikasitako gaztea zen berau. Baina Joan Ganboakoaren aginduei ez jarraitzeak, seguru asko, zorigaitza besterik ez lioke eragingo. Bestela esanda, merkatari izateari utzi beharko lioke. Horregatik zegoen Sevillan, Joan Lazkanokoa kapitainak eman beharreko aginduen zain.

Azkenean, Sevillara heldu zenetik hiru aste igaro eta gero ezagutu zuen Joan Lazkanokoa kapitaina. Cadizeko kostaldea zaintzea zen beraren egitekoa. Horretarako beren-beregi antolatutako ontziteria zuen bere esanetara. Nazari Erresumatik geratzen zena isolatua zuten zeharo, itsasarte hari zegokionez behinik behin.

Alabaina, Pedro Ilunbekoak laster jakin zuen beraren zeregina bestelakoa izango zela. Zain eta prest egon behar zen, Granadara abiatzeko, hala agintzen ziotenean. Soldadu bidali

behar ote zuten bada? Gauero bere buruari itaun hori egiten zion, ohean etzan orduko.

Egunak, hilabeteak eta urteak igaro ziren. Denbora-tarte horretan arabiarra irakatsi zioten, bai eta armak erabiltzen ere. Zinez, ez zekien zein izango zen bere egitekoa. Unea hel-tzean jakingo zuela esaten zioten beti. Sevillan ondo bizi zen, baina mugimendu-askatasuna murriztua zuen. Hurrean ere, ezin zuen irten bizi zen auzunetik, hots, militarren auzunetik.

Nazari Erresumako Boabdil erregea negoziazioetan ei zebilen Errege-erregina Katolikoen ordezkariekin. Denbora kontua zen Boabdil erregeak amore ematearena. Aurretik, ordea, odola isuriko zen artean, tarteka-marteka bi alderdien artean gauzatzen ziren erasoaldietan.

Azkenean, 1491ko irailaren lehenengo astean, Santa Feko kanpamentu-hirira joateko abisua eman zioten. Sortu berria zen kanpamentu-hiri hori Granadatik hamar kilometro eskasera zegoen. Pedro Ilunbekoa ez zen bakarrik joan. Orotara, hamar gizonak osatutako talde txiki batekin joan zen, Sevillatik Santa Fera. Bertan, hasiera-hasieratik, Kapitain Handiaren aginduetara jarri ziren denak, hots, Gonzalo Fernández de Córdoba-ren aginduetara.

Urriaren 10erako prest egoteko agindua jaso zuten. Alhambrara joan behar zuten, Kapitain Handiari laguntzera, ezkutu misio garrantzitsu batera. Itxura denez, Granadako hiriak amore ematearen inguruan gauzatzen ari ziren negoziazio horietako batera zihoazen.

Heldu zen aukeratutako eguna. Bai eta egun hartako iluntzea ere. Hautatutako hamar gizonak Kapitain Handiarekin abiatu ziren Alhambrarantz. Eurekin batera, beste bost suitzar joan ziren, garaiko infanteriarik onena eratzen zuten armadatik etorritakoak mertzenario gisa.

Esandakoaren arabera, baketsu joan behar bide zen gaua. Izan ere, Kapitain Handiak agiri batzuk jaso besterik ez zituen egin behar, antza erosita zeukaten goi agintari batengandik. Mexuar aretoan egingo zieten harrera, hori baitzen harrera-leku publikoa.

Behin Alhambrako jauregi-hirira helduta, inolako arazorik gabe sartu ziren Mexuarrera. Aldez aurretik hitzartutako kontua izanik, hori berori zen normalena, alegia, gauzak iragarritakoaren arabera gertatzea.

Hala ere, Kapitain Handia eta goi agintaria bilduta zeudela, oihu batzuk entzuten hasi ziren. Bat-batean eraso behar zituztela ohartu ziren. Litekeena zen goi agintariaren traizioaz jabetu izana. Horrenbestez, handik ihes egiteko ordua heldu zela ulertu zuten. Kapitain Handiak goi agintaria ezpataz hil zuen bertan. Eta ezertarako beste astirik gabe Pedro Ilunbekoari eman zion ondo tolestutako agiri-sorta bat, esanez:

–Nahi genuena lortu gaudelakoan nago. Ondo gorde eman dizkizudan agiriak eta jarraitu niri, enparauei beste horrenbeste egiteko esanez.

Agindutakoa bete eta osterantzeko gizonek Kapitain Handiari eta Pedro Ilunbekoari jarraitu zieten.

Lorategi eta bide-zidorretatik ekin zioten ihesari, ilargi beteko gauean.

(Jarraituko du)

Francisco Javier Arrieta Idiaketz